

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak 500.000 euroko aurrekontua duen Fiteroko mediku-kontsultategi berria osorik finantzatuko du

Vera kontseilariak egungo zentroaren instalazioak bisitatu ditu gaur, eta 2013. urtean prest izango den etorkizuneko eraikinaren kokapena ezagutu du

Viernes, 20 de enero de 2012

Nafarroako Gobernuak osorik finantzatuko du, 500.000 euro inguruko aurrekontua duen Fiteroko mediku-kontsultategi berriaren eraikuntza.

Horrenbestez, Erriberako udalerrri honek oraingoa ordezkatzeko duen mediku-zentro berri bat izango du 2013 an. Egun dagoena txiki geratu da udalerriko 2.200 biztanleak artatzeko; horri gehitu behar zaio irekita dagoen aldi baina baina okupatzen duten 900 bat pertsona, hau da, ia urte guztian (abenduaren 20tik urtarrilaren 20ra soilik ixten dituzte).

Osasun Departamentuko kontseilariak egungo mediku-kontsultategia bisitatu du gaur, eta harekin batera izan da Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari-gerente Angel Sanz ere, eta eraikin berria kokatzeko den lursaila hurbildu da.

Mediku-kontsultategian egiten dute lan Luis Castiello medikuak eta Ana Cornago erizainak lanaldi osoz; Santiago Martínez medikuak eta María Fernanda González erizainak, berriz, lanaldi erdiz. Lan-taldea honako hauek osatzen dute: Ana Isabel Lacarra administrariak, Castejónen eta Cintruénigon ere zerbitzuak betetzen dituen gizarte langile Mercedes Montoriok, Edurne Ciriza pediatriak eta pediatriako erizain Susana Roncal-ek, Cintruénigoko alboko udalerriarekin partekatzen dutena.



Vera kontseilaria Fiteroko mediku-kontsultategiko langileekin solasean, egungo zentrorra egindako bisitan.

Bisitaldia mediku-kontsultategi berria egingo den lursailetik egindako ibilbide batekin amaitu da, udalerriko udal-pilotalekuaren alboan daudenak. Fiteroko Udalak 500 metro koadroko orube bat laga du eraikina egiteko, 438 metro koadro inguruko azalera erabilgarria izango du eta honako areto hauek izango ditu: medikuntzako bi kontsulta eta erizaintzako beste bi; pediatriako kontsulta bat eta pediatriako erizaintzako beste bat; eta bi lanpostuentzako administrazioko gune bat.



Vera kontseilaria mediku-kontsultategi berria altxatuko den lekua bisitatzen.